

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3241

AGINDUA, 2020ko abuztuaren 4koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEK) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzeko ematen dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 33. artikulua ematen dizkidan ahalmenen indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 30eko 398/2013 Dekretuaren arabera eta Ogasun eta Finantza Sailak espedienteari aldeko irizpena eman diola kontuan hartuta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da HABE erakunde autonomiadunak eskainitako zerbitzuengatik salneurri publikoen zenbatekoa ezartzea.

2. artikulua.– Euskara irakasteko zerbitzuak.

Sektore publikoko langileak euskalduntzeko ikastaroak antolatu, koordinatu, kontratatu eta jarraipena egiteagatik honako hauek izango dira salneurri publikoak:

a) Sektore publikoko langilez osatutako ikas-taldeak:

1.– Aurrez aurreko ikastereduan eskaintzen diren ikastaroak euskaltegi publikoetan: 119,49 euro/orduko/taldeko.

2.– Euskaltegi publikoek aurrez aurreko ikastereduan eskainitako ikastaroak administrazioaren lokaletan: 109,54 euro/taldeko/orduko.

3.– Aurrez aurreko ikastereduan eskaintzen diren ikastaroak euskaltegi pribatuetan: 83,60 euro/taldeko/orduko.

4.– Euskaltegi pribatuek aurrez aurreko ikastereduan eskainitako ikastaroak administrazioaren lokaletan: 76,12 euro/taldeko/orduko.

b) Barnetegiak:

Euskaltegietan egiten diren egonaldi eta ostatu zerbitzuak:

– 13,37 euro/eguneko/ikasleko mantenu erdia.

– 33,47 euro/eguneko/ikasleko mantenu osoa.

c) Sektore publikoko langileen ikas-taldeetan sartzan ez diren ikasle solteak:

1.– Ikastaroak euskaltegi publikoetan: 9,95 euro/ikasleko/orduko.

2.– Ikastaroak euskaltegi pribatuetan:

– Lurralde historikoetako hiriburuetan: 7,63 euro/ikasleko/orduko.

– Gainerako herrietan: 7,08 euro/ikasleko/orduko.

3.– Ikasleei eginiko mailaketa-probak: 30 euro/orduko edo ikasleko.

d) Sektore publikoko langileen ikastaroen koordinazio eta jarraipen-zerbitzuak:

– Sektore publikoko ikas-taldeen kasuan: 5,91 euro/taldeko/orduko.

– Ikasle solteak bestelako taldetan: 0,52 euro/ikasleko/orduko.

e) Eguneko/orduko bertaratzeari buruzko datuak:

– Tarifa: 2,00 euro/ikasleko hilean.

f) Autoikaskuntza tutorizatuan eskaintzen diren ikastaroak:

1.– Autoikaskuntza tutorizatuaren bidezko ikastaroak lanpostuan bertan:

– Autoikaskuntza-sistemaren lizentziak. Haren barruan izango dira: autoikaskuntzarako softwarea instalatzea, eguneratzea eta zerbitzu teknikoa beharrezkoa izanez gero, erabiltzeko argibideak, mailaketa-azterketak, pedagogia-jarraipena eta tutoretza-saioak. Lizentziaren prezioa kontratatutako lizentzia-kopuruaren arabera izango da:

Lizentzia-kopurua	9 hilabeteko ikastaroa (190 ordu)	3 hilabeteko ikastaroa (75 ordu)
1-40	1.250,00 euro/lizentziako	550,00 euro/lizentziako
41-80	1.200,00 euro/lizentziako	545,00 euro/lizentziako
81-120	1.150,00 euro/lizentziako	540,00 euro/lizentziako
>121	1.100,00 euro/lizentziako	535,00 euro/lizentziako

– Mintza-saioak:

• Lantokian osatutako taldeetan:

○ 9 hilabeteko ikastaroa (asteen ordubete): 80,00 euro/orduko/taldeko.

○ 3 hilabeteko ikastaroa (asteen ordubete): 80,00 euro/orduko/taldeko.

• Telefono edo IKTen bidez lantokia EAEtik kanpo dagoenean:

○ 9 hilabeteko ikastaroa (banaka, 20 minutu astean): 780,00 euro/ikasleko.

○ 3 hilabeteko ikastaroa (banaka, 20 minutu astean): 260,00 euro/ikasleko.

– Zerbitzu osagarriak (ikastaro guztietan):

• Lizentzia finkotik mugikorrerako edo interneterako aldaketa (instalazio packa barne): 146 euro/ikasleko.

• Ikasle-aldaketa (lizentzia beste ikasle bati pasatzea): 92 euro/ikasleko.

• Programaren erabilera, asistentzia eta aprobetxamenduaren hileroko txostena: 4,69 euro/txosteneko/ikasleko.

- Programaren erabileraren hileroko txostena: 1,65 euro/txosteneko/ikasleko.

Tutoreek euskaltegia edo autoikaskuntzarako zentro homologatua kokatuta dagoen herritik kanpo dagoen lantokira mugitu beharra badute, joan-etorrietako gastuen ordainketak zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoetako enplegatu publikoentzat aurreikusten direnak aplikatuko dira.

2.– Autoikaskuntza tutorizatuaren bidezko ikastaroak euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan:

Autoikaskuntza tutorizatuaren bidezko ikastaroko matrikula:

9 hilabeteko ikastaroa (190 ordu)	3 hilabeteko ikastaroa (75 ordu)
1.800,00 euro	710,00 euro

3.– Lotura-eskubideak:

Euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentroyen Erregistroan inskribatu gabeko zentroytan HABEren autoikaskuntzarako ikas-plataforma erabiltzeko urteko baimena.

– 1-20 erabiltzaile: 1.595 euro/urteko/zentroko.

– 21 eta 100 erabiltzaile bitartean: aurreko prezioari urteko 79,29 euro gehituko zaio 20tik gorako erabiltzaile bakoitzeko.

– 100 erabiltzaile baino gehiago: 100 erabiltzailetik gorakoek ez dute beste gehigarririk izango.

– Prezio publiko honetatik kanpo geratzen dira sarean instalatu ahal izateko plataforman egin beharreko egokitzapen-lanak, eta baita zerbitzuaren mantenu-gastuak ere.

3. artikulua.– Hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko eta egiaztatzeko zerbitzuak.

3.1.– Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren mailaren bat egiaztatzeko azterketa eskubideak:

a) Euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleei zuzendutako proba-deialdietan eta Euskal Etxeetako ikasleentzako deialdi berezietan: 40 euro maila/deialdi/ikasleko.

b) Deialdi irekietako egiaztatze-probetan eta a) atalean aurreikusten ez diren beste deialdi berezietan: 80 euro maila/deialdi/ikasleko.

c) Salbuespenak eta hobariak.

c.1.– Ordaintzeko salbuetsita egongo dira espetxeetan dauden pertsonak, kategoria bereziko familia ugarietako kideak eta terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema arautzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden pertsonak.

c.2.– % 50eko hobaria izango dute kategoria orokorreko familia ugarietako kideek.

3.2.– Epaimahaietan eta balorazio batzordetan HABEren teknikariek parte hartzeko, frogak prestatzeko, aplikatzeko eta zuzentzeko zerbitzuak: 60 euro/lanorduko (BEZ barne).

Horrez gain, teknikarien joan-etorrietako gastuen ordainketak zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzko ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoetako enplegatu publikoentzat aurreikusten direnak aplikatuko dira.

4. artikulua.– Ordaintzeko baldintzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen zuzenbide publikoko diru-sarreraren erregistro eta kobrantza automatikoaren inguruan unean-unean indarrean den araudiaren arabera egingo dira ordainketak, administrazioaren ordainketa eta kobrantzen sistema integralaren bitartez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 2013ko irailaren 17ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 24ko eta 2019ko martxoaren 7ko Aginduen bidez aldatutakoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABEk) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzen dituen.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 4a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.